

Banakako BGAEen merkatuan mantentzen duen **lidergoa % 48,83**raino handitu du Taldeak

Kutxabankek aurreikuspenean kudeatutako ondarea % 5,42 hazi da 2021ean, 10.500 milioiraino

- **Baskepensiones BGAE 6.315 milioi euroraino (% 6) hazi da, sarrera garbien hazkundeagatik eta merkatuen bilakaera positiboagatik**
- **Finantza-sisteman laugarren Taldea da banakako aurreikuspen-produktuetan, sozialki arduratsuak diren irizpideen arabera kudeatuak erabat**
- **Titularraren profil tipoa 45 urtetik gorako pertsona batena da, batez beste 22.900 euroko ondarea duena, batez ere plan mistoetan inbertitua**

2022ko urtarrilaren 20a. Kutxabankek **10.500 milioi** euro zituen kudeaketapean 2021eko amaieran aurreikuspen-produktuetan, 2020an baino **% 5,42** gehiago.

Banakako aurreikuspeneko bolumenak **% 7,79**ko merkatu-kuota esan nahi du, Taldeak finantza-sisteman duen pisua baino askoz ere handiagoa, gutxi gorabehera **400.000 partaiderekin**. Adierazle horien arabera, sistemako laugarren Taldea da, banakako aurreikuspen-produktuetan kudeatutako kopuruari dagokionez.

Ekitaldiko bilakaera ona **sarrera garbi positiboen** hazkundeari esker gertatu da, **181,5 milioi eurotik** gorakoak izan baitira **Baskepensiones BGAE**ren kasuan, hau da, **% 42** gehiago 2020koaren aldean.

Epigrafe horren barruan erabakigarria izan da bezeroari laguntzeak eta egindako kudeaketa komertzialek lorturiko erantzuna, baita Kutxabankeko aurreikuspen-produktuen errentagarritasunean izan den bilakaera ona ere. Inguruabar horiek eragin dituzte **Baskepensiones BGA**Era **68,3 milioi** euro baino gehiagoko **lekualdatze garbiak**, 2020an baino **% 87,14** gehiago.

Merkatuen portaerak eragindako **errebalorizazioak** dira bilakaera horren bigarren arrazoa, eta horri esker Kutxabank Taldeak bere lidergoa sendotu du banakako aurreikuspen-produktuen euskal merkatuan, **% 48,83**ko kuotarekin.

Urtea amaitzean, Baskepensionesek **6.315 milioi** euroko ondarea zuen kudeatuta (2020an baino % 6 gehiago), eta **275.800 bazkide eta onuradun** baino gehiago.

Hileroko kuotak hazi egin dira

Gero eta ohikoagoa da Kutxabanken aurreikuspen-produktuen partaide guztiek aldiari behingo ekarpenak egitea, normalean hilerokoak, inbertsio-mota horren urtarokotasuna hausten dutenak. **Aldizkako kuotak** ekarpen guztien % **40,8**ra igo izanak erakusten du mentalitate-aldaketa, baina egia da erdia urteko azken hiruhilekoan kontzentratzen dela.

Baskepensiones BGAEko bazkideek zuten ondarearen **batez besteko saldoa 22.900 euro** ingurukoa zen 2021aren amaieran, 2020an baino % 5,34 gehiago, eta **saldo osoaren % 90** baino gehiago **45 urtetik gorako** bezeroei zegokien.

Adin-tarte desberdinek biltzen duten **batez besteko ondareari** dagokionez, erretiroa hartzeko adinean dauden pertsonena **50.000 euro** ingurukoa da.

Genero-ezaugarriari dagokienez, % **52** gizonak dira eta % **48** emakumeak. 30 eta 45 urte bitarteko bezero-taldea bazkide guztien % **27** da, eta aurrezteko modalitate horrekiko interesa gero eta handiagoa da gazteen artean.

Halaber, ekarpenak egiteko kanalak aukeratzeko orduan ere joera-aldaketa argia sumatzen da. Pentsio-planetako eta BGAEeko kontratazioen % **30 aurrez aurrekoak ez diren kanalen** bidez egiten da gaur egun.

Kutxabankeko bezeroek aukeratzen dituzten aurreikuspen-planen motari dagokionez, % 87 plan mistoetan biltzen da, errenta finkoko aktiboetan inbertitzea eta errenta aldakorreko aktiboetan inbertitzea uztartuz. 2021ean bilakaera edo portaera hobea izan dute errenta aldakorrean inbertituta ehuneko handiagoa duten planek, haien ondarea BGAEko guztizkoaren ia % 50era iritsi baita, planen artean intsuldaketa edo traspaso handiagoa izan baita. Dauden eskaintzen artean ondarea eskualdatzeko eta bezero bakoitzaren inbertitzaile-profilera egokitzeko aukera da banakako aurreikuspen-produktuen abantailetakoa bat.

Kudeatutako aurreikuspen-produktu guztietan egiten diren inbertsio guztiak **sozialki arduratsua den inbertsio-irizpideen arabera** egiten dira. Horrela ziurtatzen da inbertsioen hartzaile diren erakundeek Giza Eskubideak errespetatu, ingurumena zaindu, Gobernu Onaren Politikak eta zerga-arloko praktika edo jardunbide egokiak bete eta sustatzen dituztela beren jardura-eremuan.